

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko otsailaren 1a. IX. urtea. 2.475. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Juan Bautista Aranzabe, Ibai Iriarte, Fernando Ropero, Javier Arrizibita eta Irati Iriarte, atzo, Tolosako inauterien aurkezpenaren. I. URKIZU

Inauteriak lehertzeko, astebete

Tolosako inauteriak aurkeztu dituzte; Ostegun Gizenaren atariko gisa, bihar kaldereroen festak hartuko du herria

Karroza eta konpartsa lehiaketak lehenengo aldiz parekidetasuna eta euskara izango ditu irizpide **2-3**

I. Euskaltrail Eguna antolatu dute eta Ibarrek hartuko du hilaren 23an

Hiru tolosarrek sortu duten 'euskaltrail.com' atariak bultzatu du, eta mendi laterketa, bazkaria eta mahai ingurua egingo dituzte **7**

Dantza Soka Egunean 60 anoetarrek egingo dute dantzan

Anoetan bihar ospatuko dute Dantza Soka Eguna; 08:30ean elkartu eta baserriz baserri ibili ostean, 12:30ean plazan egingo dute emanaldia **4**

Villabonako Udalak ia sei milioi euroko aurrekontua onartu du

Udal Gobernuak duen Bilduren botoekin egin du aurrera aurtengo aurrekontuak; EAJk eta PSE-EEk proposamenaren aurka bozkatu dute **6**

Ibarrek Udalak eta LABek bat egin dute Huyck Wangner-eko langileekin

Zizurkilgo lantegiko beharginen manifestazioa antolatu dute biharko, Tolosako Trianguloa plazatik hasita, eta bertara joateko deia egin dute **6**

Gure lehen urtemuga dela eta, eskerrak eman nahi dizkiegu
gure bezero eta lagun guztiak.
Aldi berean tolosara hurbilduko zareten guztiok
inauteri zoriontsuak opa dizkizuegu.

Elketa Jatetxea

ESKERRIK ASKO!

Inauterietako menu berezia

32 €



Jose Mari Mendibil, Irati Iriarte, Ibai Iriarte, Juan Bautista Aranzabe, Fernando Ropero eta Javier Arrizbita, inauterieren aurkezpenean. I. URKIZU

«Luxuzko egitarauak eskuratu ezin dutena» dator aurtengo inauterietan

Txosnak festako gune garrantzitsua izango dira, egunero kontzertuak eskainiz

Ostegun Gizenaren atariko gisa, Kaldereroen festa izango da bihar, eta bi buruhandi berri aurkeztuko dituzte

Itzea Urkizu

Datorren ostegunean lehortuko da suziria, 12:00etan puntuan, eta horrekin batera «luxuzko egitarauak eskuratu ezin dutena lortuko dute Tolosako inauterietan», Ibai Iriarte alkateak nabarmendu bezala.

Izan ere, Tolosako Udalak bereziki azpimarratu nahi izan du herritarren parte hartzea, festak antolatzerakoan: «Inauteri hauek norberak egiten ditu berezi, eta tolosarrek egindako lanari esker dira horrelakoak; zazpi egunez, umore ona, jaia eta musika nagusi izango dira herrian».

Herritarren inplikazio horren erakusle, Txozna Batzordeak an-

tolatutako egitarau oparoa aipatu du Ibai Iriarte alkateak: «Euskal Herria plaza festa gune garrantzitsua izango da, eta horregatik hain zuzen, inauterietako egitarau ofizialean txertatu dugu eurek prestatutakoa».

Modu honetara, eta Tolosako Txozna Batzordeko Irati Iriartek azaldu duenez, egunero izango da, askotariko musikaz gozatzeko aukera, *Txoznak Euskal Herriaren parte...ta ez utzi aparte!* leloari eutsiz.

Aipatzekoa da, gainera, Laket taldeak, herriko beste hainbat musikarirekin batera, 2013ko txosnetako abestia egin duela; *Gure plazan* izenburua aukeratu dute doinuarentzat.

Txozna batzordeko gazteen gisa berean, Poca Tripa txarangako sortzaileak ere gazte zirela hasi ziren lehen pausoak emanez. 50 urte bete dituzte aurtengoa, eta herritarren parte hartzearen beste adibidetzat jarri ditu Ibai Iriartek. Fernando Ropero, Javier Arrizbita eta Jose Mari Mendibil izan dira agerraldian, eta «bidean geratu ziren txarangako kideak» gogora ekarri nahi izan ditu Mendibilek, jende guztia Tolosako inauterietara gonbidatzearekin batera.

Azkenik, Juan Bautista Aranzabe *Matek* eguraldi ona besterik ez die eskatu jaiei: «Inauteriak zaindu behar dira, gureak baitira», gaineratu du. Gaur bertan, hitzaldia eskainiko du, Iturriza erretirodunen elkarteak: *Tolosako inauteria eta bere zergatia*.

Euskara nagustitzeko nahia

Tolosako inauterietan ez dute aldaketa handiegirik jasaten urte batetik bestera, eta askoren ustez, horregatik dute, hain zuzen, xarma berezi hori: «Berrikuntza gehiegi ez da izaten, eta nobedade aipagarriena, festak urtero egokitu eta antolatzeko modua da», alkatearen ustez. 2013ko otsailaren 7tik 12ra bitarteko inauterietan,



■ **Abestia.** Laketek egindako *Gure plazan* abestia.

ruxkarena. Bide beretik, karroza eta konpartsen lehiaketako legeak aldatu, eta aurtengoa estraineko, epaimahaiak kontuan izango dituzten parekidetasuna eta euskara, sariak banatzerakoan: «Karroza eta konpartsen emanaldi nahiz idatzietan euskara lehenestea lortu nahi dugu, eta bestetik, jarrerara sexistak saihestu eta emakumeen parte hartzea bultzatzea».

Festa eta eromenaren erdi-erdian, haurrek ere beren gunea izango dute aurtengoa, Alondregia plazan gaztelu puzgarriak eta ohe elastikoak jarriko baitituzte.

Beste berrikuntzetako bat, herritarren artean jakinmina piztu



Inauteri hauek norberak egiten ditu berezi, eta tolosarren lanari esker dira horrelakoak»

IBAI IRIARTE
Tolosako alkatea

duen zezen plazako sarreren auzia izan da. Txarangen atzetik saltoka sartu ahal izateko, gonbidatuenak eskuratu beharko dira, astelehenean, Udaltzaingoa. Berrikuntza nagusia, ordea, internet bidez zezenetako sarrerak erosteko aukerarena izango da; www.barrabarra.eu webgunean eskuragarri izango dira, astelehenean aurrera.

Jantokiei dagokienez, berriz, Herriraren sagardotegia Lapurdi plazan izango da, eta Zerkautsian ere jantoki erraldoia prestatuko dute.

Azkenik, Tolosako Udalak garraio publiko sustatuko du, eta Renferekin elkarlanean, iaz baino tren zerbitzu gehiago izango dira, Tolosara etortzeko.



Eskuragarri dago jada, inauterietako kantu liburuxka. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Egitaraua

OTSAILAK 1, OSTIRALA

■ **18:30.** *Tolosako Inauteria eta bere zergatia* hitzaldia, Juan Bautista Aranzabe *Materen* eskutik, Iturriza jubilatuta elkartean.

OTSAILAK 2, LARUNBATA

■ **11:00.** Aiz-Orratz eta Eroetxe elkarteek eskainitako buruhandien aurkezpena udaleko pleno aretoan. Ondoren, Tolosako Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroek lagunduta Plaza Zaharretik aterako dira.

■ **15:00.** Haurren Txantxo Lehiaketa izango da Zentro Sozio-Kulturallean.

■ **16:00.** Aiz-Orratz elkarteko txaranga irtegora da elkartetik bertatik.

■ **16:30.** Haur Jaialdia, Aiz-Orratz elkarteak antolatuta, Leidor aretoan. Jaialdian Txantxo Lehiaketako irabazleen berri emango da.

■ **19:00.** Urdiria Txiki Elkarteak antolatuta, Kaldereoren Konpartsa aterako da Plaza Zaharretik.

■ **23:30.** *Incansables* txaranga kalez kale ibiliko da (Ezpeleta elkartearen babesarekin).

OTSAILAK 3, IGANDEA

■ **12:15.** Inauterietako kontzertua izango da, Tolosako Musika Banda eta Udal Txistulari Bandaren eskutik, Berdura plazan.

OTSAILAK 7, OSTEGUN GIZENA

■ **11:15.** Herrira-k antolatutako ekimena Trianguloa plazatik.

■ **11:30.** Udal Txistulari Bandak inauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiturazko ibilbidea.

■ **11:45.** Kabi-Alai elkarteak Inauterizale Kuttuna izendatu-

ko du, eta jarraian, elkarteko ki-deek pregoia irakurriko dute udaletxeko balkoitik.

■ **11:45.** Ostegun gizeneko konpartsa Plaza Zaharrean agertuko da.

■ **12:00.** Inauteriei hasiera emango dien suzuria botako dute, udaletxeko balkoitik.

■ **12:00.** Pintxana eta Kabi-Alai txaranga Aroztegieta kaletik barrena aterako dira kaleak alaitzera.

■ **13:00.** Txosnagunean Herrira-k antolatutako brindisa izango da.

■ **16:30.** Zezen Plazan zezen festa izango da, Pintxana eta Kabi-Alai txaranga elaiturik. Ondoren, kalejira.

■ **19:30.** Emakumeon plazatik zezen suzuko irtegora da. Antolatzailea Ero Etxe elkarte izango da.

■ **20:00.** Aurrera Kirol elkartearen danborrada.

■ **23:30.** Txosnagunean La Jodedera taldearen kontzertua.

OTSAILAK 8, OSTIRAL MEHEA

■ **11:30.** Ozenki Txistulari taldearen kalejira.

■ **16:30.** Zezen plazan zezen festa izango da, Kabi-Alai txaranga alaituta. Ondoren, kalejira.

■ **20:30.** Ostiral Mehe eguneko danborrada.

■ **20:30.** Txosnagunean Zahagi ardoa. Zuk jana, txoznak edana.

■ **22:00.** Txosnagunean kontzertua: Convenio del Metal, Wainot eta Ai ene taldeekin.

■ **22:45.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia izango da, Leidor aretoan.

OTSAILAK 9, ZALDUNITA BEZPERA

■ **11:00.** Erraldoi eta buruhan-

diek irteera Plaza Zaharretik egingo dute.

■ **11:30.** Kabi-Alai elkarteko txaranga irteera.

■ **11:30.** Dantzari txikien kalejira abiatuko da Triangulotik.

■ **11:45.** Plaza Berrian, dantzari txikiak lehen dantza saioa eskainiko dute, musika eskolako ikasle bandak lagunduta.

■ **17:00.** Aiz Orratz elkarteak antolatuta, Haur Danborrada aterako da Geltoki kaletik.

■ **19:00.** Herrira-k antolatutako elkarteratzea Trianguloa plazan.

■ **19:00.** Tolosako Danborradaren irteera izango da, Trianguloa plazatik.

■ **20:30.** Txosnagunean kontzertua: Skakeitan, Bizardunak eta Izargi taldeekin.

■ **23:30.** Oriako Txaranga eta Iraunkorrek txaranga kalez kale.

OTSAILAK 10, ZALDUNITA

■ **08:00.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.

■ **08:45.** Herriko Txistulari Bandak ohiturazko ibilbidea eginez, Inauterietako Zortzikoa joko du.

■ **10:00.** Txaranga irteera izango da.

■ **11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Kabila txaranga alaituta.

■ **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.

■ **15:45.** Udal Txistulari Bandak Ildiarena pieza joz egingo du ohiturazko ibilbidea.

■ **16:00.** Kalejira Urdiria Txiki, Alcoyano eta Aiz Orratz txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazaraino.

■ **16:30.** Zezenak zezen plazan; txaranga eta txistulariak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.

■ **18:00.** Txosnagunean kontzertua: 3gabe2, Laket, DJ Bull eta DJ OGT izango dira.

■ **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Urdiria Txiki, Alcoyano eta Aiz Orratz txarangekin.

■ **23:30.** Kalean eta Oriako Txaranga txaranga kalez kale ibiliko dira.

OTSAILAK 11, ASTELENITA

■ **09:00.** Txaranga irteera.

■ **11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Berazubi txaranga alaituta.

■ **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.

■ **16:00.** Kalejira, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazaraino.

■ **16:30.** Zezenak zezen plazan; txaranga arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.

■ **18:00.** Txosnagunean kontzertua: Veneno Verde taldearekin.

■ **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin.

■ **22:00.** Txosnagunean kontzertua: Zesuma taldearekin.

■ **23:30.** Boberenea txaranga ibiliko da kalez kale, giroa alaitzen.

■ **23:30.** Plaza Berrian Dj Jotatxo izango da.

OTSAILAK 12, ASTEARTITA

■ **06:00.** Udal Txistulari Bandak Alborada joko du Udaletxe-

ko arkupetan, Berdura plazan eta Felipe Gorri plazan.

■ **08:00.** Pattar zezena, zezen plazan. Ondoren, kalejira izango da.

■ **11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Kabila txaranga alaituta.

■ **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.

■ **15:45.** Herriko Txistulari Bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, Ildiarena pieza joko du.

■ **16:00.** Kalejira izango da Txapel Haundi, Sukalde eta San Esteban txarangekin, Plaza Zaharretik hasi eta Zezen Plazaraino.

■ **16:30.** Zezenak izango dira zezen plazan; txaranga eta txistulariak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.

■ **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Txapel Haundi, Sukalde eta San Esteban txarangekin.

■ **23:30.** Jainekin eta Incansables Zaharrek txaranga irteera.

■ **23:30.** Sardinen hiletan eta konpartsen irteera, Gure Txokoa elkartetik.

OTSAILAK 17, IGANDEA

Poca-Tripa txaranga eta Txilaba Elkartearen konpartsa lurre-amendi Egoitzara joango dira.

OHARRAK

Eraso Matxisten Aurkako Informazio Puntua egongo da.

Herrira-k antolatutako sagardotegia Lapurdi plazan izango da.

↓ Iragarki laburrak

ESKUALDATZEA

Taxi zerbitzua. Zizurkilen, taxi lizentzia eta autoa eskualdatzen dira. Interesatuek, deitu 608 575900 telefono zenbakira.

SALGAI EDO ALOKAIUAN

Ileapaindegia. Villabonan, ileapaindegia saldu edo alokatuko nuke. Interea duen edonork, dei dezala 630 09 90 92 telefono zenbakira.

Irudia



INAUTERIEN HISTORIA LIBURU BATEAN

Tolosako inauterien inguruko liburua aurkeztu du Mikel Telleria tolosarrak, *Inauteria. El carnaval de Tolosa* izenburupean. Historiari eta tradizioari dagokion dokumentuez gain, dokumentu grafiko-

ak ere bildu ditu, tartean propaganda eta kartelak daudela. Gainera, Euskal Herriko nahiz munduko inauteriak ere hizpide izan ditu. Tolosako Kasinon egin du aurkezpena. ITZEA URKIZU

www.inmosalbide.com



Aia. Baserria berritu berria. 125m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000m2. 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askaruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldia, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!.

Donostia. Amara-Ameketa kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Itzina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m2 ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria. 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

Orendainen, Euskal Herriko lehen zero zabor herrian, birziklatze sistema berriarekin batera 'Ttip' eta 'Ttup' txerrien laguntza dute hondakin organikoa kudeatzeko. Herritarrak gustura daude, eta emaitza ere ona da.

Beste modu bat hondakin organikoak kudeatzeko

Adrian Garcia (Berria) Orendain

Erdi txantxetan ateratako ideia izan zen hastapenean. Hondakin organikoak nola kudeatu eztabaidatzen zebiltzala, Orendaingo udal arduradunek honako galdera hau egin zioten euren buruari: «Herrian nola egin izan dute betidanik?». Erantzuna berehala etorri zen: hondakin organikoak txerrietara botata.

Horrela erabaki zuten *Ttip* eta *Ttup* txerri emeak herriko birziklapen prozesuaren zati osagarri bilakatzea. Herritar bakoitzak bere etxean konpostagailu du, eta eraikitako etxebizitza berrietarako konpostagailu komunitarioa jarri dute.

Eltxo elkartean eta herriko ostatuan, ordea, hondakin organiko asko sortzen dira, eta hondakin horiek dira bi txerrien eguneroko bazka. Bestalde, organikoaren larrialdi gune modura ere erabiltzen dute *Ttip* eta *Ttup*-en harraskak. Noizbait etxe batean gonbidatuak badaude, eta ohi baino hondakin gehiago sortu badira konpostagailuan sartzeko, txerrien harraskara jotzeko aukera dute biztanleek.

Azkenik, baserrietako animalia hilen gorpuak bertara botatzeko ere erabiltzen dituzte; haien tripa, hesteak eta lumak asko eskertzen dituzte txerriek. «Organikoaren kudeaketak sor diezazkizugukeen arazoak konpontzeko bidea ematen digute txerriek», azaldu du Gorka Egia alkateak. Normalean, egitekoa modu era-



Ttip eta Ttup hondakin organikoa jaten. A. CANELLADA/A. PRESS

ginkorrean betetzen badu ere txerri bikoteak, harraskaren ondoan beste konpostagailu bat dute, eguneko otordua atsegin ez dutenerako.

Hondakinak txerriei ematea horren aspaldiko kontua ez dela gogoratu du Egia. Izan ere, orain dela gutxi arte, baserriarra tabernara esnearekin joaten zenean, bueltan tabernako soberakinak eramaten zituen txerrien tizat. Herriko hondakinen kudeaketarako konponbide praktikoa izateaz gain, txerriek beste ondorio baikor batzuk ekarri dituzte. «Herrian oso maitatuak dira *Ttip* eta *Ttup*». Adineko jendea txerriak egoten diren belazearen inguruan biltzen da, eta txerria izaten dute mintzagai.

Eskolaurreko umeek ere, eguraldiak laguntzen duenean behintzat, txerriei hondakin or-

ganikoa emateaz arduratzen dira.

Zero zaborretik gertu

Azaroaren erdialdean hasi ziren sistema berri hori erabiltzen, eta lehen kalkuluaren arabera, zaborraren %93 inguru birziklatzea lortu dute. «Euskal Herrian zero zaborrera iristeko gertuen dagoen herria da», azaldu dute Jon Ander Galarragak eta Adur Camposek, Spora Ingurumen Zerbitzuetako langileek. Tolosaldeko konpostagailuak ezartzeaz eta azterketak egiteaz arduratzen dira. «Txerriekin ez da konpostajearekin sortzen den usain txarra gertatzen», diote. Emaitza ikusita, beste herrietan jakin-mina piztu du orendaindarren birziklatze sistemak, eta askok jo dute informazio eske. Elduainen ere antzeko sistema erabiltzen hasi dira.

'Emaztegaiaren semea' estreinatuko dute, gaur, Tolosan

Leidor antzokian ikusi ahal izango da 20:30etik aurrera; 'El hijo de la novia' filmean oinarritu dira antzezlanaren idazteko

R.C. Tolosa

Tolosako Leidor antzokian estreinaldi bat ikusi ahal izango da gaur, 20:30etik aurrera. Ados Teatro taldeak *Emaztegaiaren semea* lana taularatuko du daukozen hilabeteetan eta Tolosa aukeratu dute lehen aldiz erakusteko.

Fernando Castets eta Juan J. Campanellaren *El Hijo de la Novia* filmaren antzerkirako egoki-

tzapena da, eta Asier Hormaza, Sara Cozar, Iñake Irastorza, Kandi Uranga eta Mikel Laskurain aktoreak dira Garbi Losadaren zuzendaritzapean ariko direnak.

Emaztegaiaren semea komedia handi egiten duten istorio horietako dela diote egileek eta horren arrazoia hauxe dela: «Eszena gehienetan, elkarrizketa dramatikoen erdian, umorea azaltzen da».

Gertakizun nagusi bi dira egitura tragikomikoaren oinarria, guzuzen ezkontza eta familiako jate baten zorigaitzako negozioa kate handi bati saldu beharra. Ikuslea barre algaratik negargurara eramaten duten pertsonaiak eta egoerak ditu ardatz, *Emaztegaiaren semeak*.

→ Laburrak

Eresargi abesbatzakoak Agate Deuna bezperan

VILLABONA Eresargi abesbatzak Agate Deuna bezperan kantatzen ateratzeko gonbita egin du. Astelehenean 18:30ean ordu erdiko entsegu egingo dute eta 19:00ak aldera aterako dira. Aurten trikitalarien eta Amaia Agirre bertsolariaren laguntzaz ariko dira. Ondoren sagardotegira joango dira.

Meditazio saioak egingo dituzte Leitzako zineman

LEITZA Leitzako zineman meditazio saioak egingo dituzte, euskaraz, gaur eta hilaren 15ean. Bietan 20:00etan bilduko dira eta Urko Arozena izango da arduraduna. Saioak doanekoak dira eta ordu bete inguruak. Buruko entrenamenduak ere egingo dituzte hilaren 23an; 09:00etatik 13:00etara euskaraz eta 15:00etatik 19:00etara gaztelaniaz. Matrikulak 100 euro balio du.

Erakundeetan euskararen erabilera bermatzeko akordioa sinatu dute

Uema mankomunitateko herriek, eta Ibarra, Tolosa eta Zizurkilek hartu dute konpromisoa

Rebeka Calvo

Erakundeen ardurapeko lanetan eta zerbitzuetan euskarak tokia izan dezan bermatzeko, urratsa eman dute Gipuzkoako Diputazioak eta herrialdeko 36 udalek,

tartean direlarik Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide diren Tolosaldeko 15 herriak (Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Oresa) eta baita Ibarra, Tolosa eta Zizurkil ere.

Kontratu publikoak

Helburua kontratu publikoetan hizkuntza irizpideak txertatzea da eta horrek enpresei ere mesede egingo diela adierazi dute,

«merkatu berri bat» irekiko baitzaie, Zigor Etxeburua aldundiko Euskara zuzendariak azaldu duenez. Herritarrentzat eta eraikuntzarentzat, euskararen erabilera areagotu nahi dutela gaineratu du.

Udalen nahia erakundeek enpresen esku uzten dituzten obratan eta zerbitzuetan euskara bermatzea da. Eta kontratu guztietan jarriko dituzte irizpide horiek: obratan, zerbitzu publikoen kudeaketan eta hornidura-koetan.

Egin HITZAren HARPIDEDUN
otsailaren 1etik martxoaren 31ra arte, ETA JASO

EKAIN sagardoa
6 botilako kaxa bana

Harpidedun egiten diren guztien artean

Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia **ZOKATUKO DUGU**

Harremanetarako: 902 82 02 01 harpidetza@hitza.info

hitza

Huyck Wangner-eko langileekin, LAB eta Ibarrako Udala

Bihar, 12:00etan, Tolosako Trianguloan hasiko den manifestazioa deitu dituzte herritarrek

A. Imaz

Zizurkilgo Huyck Wangner *Perot*-eko langileak elkartasuna eta babesa biltzen jarraitzen dute. Herenegun, Amasa-Villabonako udalbatzak egin zuen bat biharko manifestazioarekin, eta atzo, Ibarrako Udalaren eta LAB sindikatuaren elkartasuna jaso zuten. Guztiek herritarrei gauza bera eskatu diete, hau da, bihar Tolosako Trianguloara agertzea, 12:00etan, Huyck Wangner lantegiko langileen egoera salatuz.

Ibarrako Udaletik esan duteenez, *Perot*-eko langileak asteartean udalbatzaren bilkuran izan ziren, euren egoeraren berri ematen. Bertan aurkitzen ziren hautetsiek, Bildu, EAJ eta PSE-EEren ordezkariak, langileei euren babesa eskaini zien.

Multinazionalak

Tolosaldeko LAB sindikatuak eskualdeko egoera sozioekonomikoaren inguruko kezka azaldu du

beste behin ere: «Langabeziaren igoera nabarmena, enpresen itxiera... eta asko kezkatzen gaituen eskualdeko industrigunearen nolokotasuna».

LABen esanetan eskualdeko enpresa asko multinazionalak dira, hau da, erabakiguneak Euskal Herritik urrun dituzte: «Langileon beharrezan kontuan hartu gabe enpresaren mozkinak nola handitu da euren kezka nagusia, edozein momentutan, enpresako edota merkatuko egoerak hala eskatuta, produkzioa eta enpresa deslokalizatzeko aukera dute».

Enpresa horietako batzuetan, azken hilabeteetan mugimendu «kezka garriak» egon direla dio LABek. Lantegi horietako langileei elkartasuna azaldu nahi izan die, bereziki *Perot*-ekoei, eta antolaturiko mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu diete LABeko militantzia eta langile guztiei, nahiz gizarte osoari.

Multinazionalen jokatzeko moduari aurre egiteko, egun, modu bakarra borroka eta mobilizazioa dela esan du LABetik: «Langileon borroka lan harremanetarako euskal esparruaren defentsan kokatu beharra daukagu, burujabetza politikoa eta ekonomikoaren bidean».

→ Laburrak

Korrikaren aldeko mus txapelketa, igandean

ANOETA › Korrika Batzordeak Korrikaren aldeko mus txapelketa antolatu du otsailaren 3an, igandean. Kuku elkartearen izango da lehia, 16:30etik aurrera. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu, eta izena emateko ordutegia 16:00etan zabalduko dute.

'Madagascar 3' eta 'Lincoln' filmak, Leidorren

TOLOSA › Leidor zineman *Madagascar 3* eta *Lincoln* filmak ikusteko aukera egongo da igandean, otsailaren 3an. Haur zineak 17:00etan hasiko da, eta *Lincoln* 19:30ean eta 22:15ean. Astelehenean, hilaren 4ean, Steven Spielbergen azken filma berriro ikusteko aukera egongo da Leidorren, kasu honetan, ikusleen eguneko prezioen barruan. Asteleheneko *Lincoln* filmaren emanaldia 20:30ean hasiko da.

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Menu ederra XVI. mendeko jauregi zoragarri batean

ATXEGA JAUREGIA
Alde zahar, 1 - Zuzenki at
GUREL 3071 - GURELGA
Tel. 94 37 11 88
www.mauka.com
www.atxega.com

Prezioa **26€**

berria

www.mauka.eu

Amasa-Villabonan 2013ko aurrekontuak onartu dituzte Bilduren botoekin

EAJk eta PSE-EEk aurrekontuen aurka bozkatu diete; horren arrazoi nagusia atez-atekoa izan dela diote

Asier Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako udalbatzak 2013ko aurrekontuak onartu zituen herenegun, osoko bilkuran. Bilduren zazpi zinegotziek aurrekontu proiektuari aldeko botoa eman zioten, eta EAJren bik eta PSE-EEren bakarrak ezezkoa. Ondorioz, udalbatzak 5.834.815 euroko kontuak onartu zituen hasi berri den urte honetarako.

Galder Azkue alkateak oposizioaren jarrera salatu zuen, ekarpenak egiteko gaitasunik erakutsi ez dutela esanaz. PSE-EEren zinegotziak, Maria Luisa Arijak, bilkuran aurkeztu zituen proiektuari buruzko zuzenketak. Azkuek azken unean aurkeztu izana kritikatu zuen, aldatetako aztertzeko denborarik ez zegoela gaineratuaz. EAJren zinegotziek ez zuten zuzenketarik aurkeztu, hori bai, euren bozka ezezkoa zergatik izango zen azaldu zuten. Oposizioko bi alderdiak ados jarri ziren ezezkoaren arrazoi nagusia azaltzerako unean: aurrekontue-



Amasa-Villabonako udalbatzaren osoko bilkura, herenegun. A. IMAZ

tan atez ateko hondakin bilketa sistema gauzatzeko partida zegoela salatu zuten, eta eurak horrekin ez zeudela ados esan zuten.

2013ko aurrekontuek azken urteetako beherako joera hautsi egiten dute. 2010ean, aurrekontuetarako 5.890.823 euro bideratu ziren; 2011n, diru kopuruak beheraka egin zuen, 5.675.195 eurora jaitsiz; iaz, oraindik eta gehiago jaitsi zen, 5.639.597 euroraino. Aurten, ordea, zenbakiek goranzko bidea hartu dute, eta 2010eko zenbakietara gerturatu dira.

Perot-eko langileak

Bilkuraren amaieran Galder Azkuek Huyck Wangner lantegiko langileen egoera izan zuen gogoan. Eurekin elkartu zela esan zuten alkateak, eta elkartasuna

2013ko aurrekontuak

5.834.815 EURO

- Zerbitzuak. % 23,56.
- Bulegoak. % 14,69.
- Kultura. % 12,12.
- Gizarte zerbitzuak. % 10,73.
- Euskara hezkuntza. % 9,01.
- Udal gobernua. % 7,76.
- Zor publikoa. % 7,62.
- Udaltzaingoa. % 6,22.
- Kirola eta gazteria. % 4,75.
- Hirigintza. % 2,64.
- Ingurumena eta mendiak. % 0,90.

erakutsi nahi izan zien, larunbeteko manifestazioarako deia herritarren artean zabaltzearekin batera.

Irudia › Tolosa



LITAARAFU ELKARTEA EZAGUTU DUTE

Hirukide ikastetxeko ikasleek Litaarafu elkarte bertatik bertara ezagutzeko aukera dute. Atzo eta gaur, Tolosako Araba etorbidean dagoen elkartetik 150 ikasle inguru pasako dira. Bertan, islamiar kultura ezagutzeko aukera izango dute, eta baita

galderak egiteko ere. Bosgarren eta seigarren mailako geletako ikasleak gerturatuko dira, Litaarafu elkarteak eta Hirukidek lortutako akordioari esker. Aurrez, EPAko ikasleak izan zuten Litaarafu ezagutzeko aukera. A. IMAZ

Aurrera Saiazkoen partidak, asteburuan

I.T.

Tolosaldeko pilotari gazteak biltzen dituen Aurrera Saiaz eskola-gazteek partidak dituzte. Uda-berri eta Euskadiko txapelketan ariko dira gaur eta bihar.

EUSKADIKO TXAPELKETA

- **Gaur, ostirala.**
- Beotibar, 20:30, Aurrera Saiaz (Ander)-Amurrio.
- Huarte, 19:30, Huarte-Aurrera Saiaz 2 (E. Aburuza).
- Beotibar, 20:30, Aurrera Saiaz (Arratibel)-Aralar Mendi.
- Ordizia, 20:15, Txapagain-Aurrera Saiaz (Peña-Mendia).
- Huarte, 19:30, Huarte-Aurrera Saiaz 1 (Larrea-Erasun).
- Beotibar, 20:30, Aurrera Saiaz (Bixintxo-K. Galarraga)-Maeztu.
- **Bihar, larunbata.**
- Lakua, 18:30, Txukun Lakua-Aurrera Saiaz (Elustondo).
- Beotibar, 10:00, Aurrera Saiaz (Esnaola)-Real Sociedad.
- Beotibar, 10:00, Aurrera Saiaz (P. Labaka-Iruretagoiena)-Arkupe.
- Beotibar, 10:00, Aurrera Saiaz 3 (Mugika-X. Imaz)-Lemoa.
- Beotibar, 10:00, Aurrera Saiaz (E. Labaka-I. Labaka)-Hobereña.

UDABERRI TXAPELKETA

- **Gaur, ostirala.**
- Zegama, 19:00, Tartaloetxe-Aurrera Saiaz 2 (Etxeberría-Balardi).
- Urretxu, 18:30, Goierri 3-Aurrera Saiaz 1 (I. Urdapilleta-Zaldua).
- Beasain, 19:30, Murumendi 2-Aurrera Saiaz 1 (Mugika-Jauregi).
- Beasain, 19:30, Murumendi 1-Aurrera Saiaz 2 (Ariztimuño-A. Galarraga).
- **Bihar, larunbata.**
- Bidania, 16:30, Aurrera Saiaz (Agirretxe-Lezea)-Allerru.



Ibilbide luzeko lasterkariak Ibarrik irten eta Zazpibide, Leaburu, Belauntza eta Gaztelu zeharkatuko dituzte. I.T.

I. Euskaltrail Eguna egingo dute Ibarren, hilaren 23an

Mendi lasterketa, bazkaria eta mahai ingurua izango dira; 'euskaltrail.com' atariak antolatatu du

Iñigo Terradillos Ibarra

Lehenengo Euskaltrail Eguna hartuko du Ibarren hilaren 23an. Euskal mendi lasterketen inguruko informazioa jorratzen duen atariak euskaltrail.com-ek antolaturiko ekimena da, «jendea mundu honetara erakartzeko, gehiago ikasteko, eta egun polita igartzeko» helburuarekin.

Euskal Trail Eguneko osagai nagusietako bat Ibarren hasi eta amaituko den lasterketa izango da. Parte hartzaileen ezaugarrien arabera, hiru taldetan banatuta egingo dutela azaldu du euskaltrail.com-eko Unai Ugartemendiak: «Batzuk erritmo azkarragoan joan nahiko dute, eta beste batzuek, berriz, lasaigoan, ia oinez, beraz, hiru ibilbide izango dira:

ordubete ingurukoa, ordu eta erdikoa eta bi ordukoa».

Nahi duenak parte hartu ahaliko duen mendi lasterketaz gain, beste hainbat ekitaldi ere izango dira. Bazkaria izango da Izaskun auzoan, eta Euskal Herriko lasterkari onenak izendatu eta sarituko dituzte. Halaber, materialen zozketa egingo dute, eta baita mendi lasterketen inguruko mahai ingurua ere. «Munduko korrikalari onenak, Iker Karrera eta Oihana Kortazar kasu, gungandik oso gertu ditugula baliatuz elkar-tu egin nahi izan ditugu, eta interresgarria iruditu zaigu eurekin du Ugartemendiak. Karrera eta Kortazarrez gain, Zigor Iturrietak eta Aitor Lopez Rekartek ere parte hartuko dute solasaldian. Halaber, lau izen hauez gain, euskal selekzioko kideak ere Ibarren izango dira otsailaren 23an.

Lasterkariarentzat erreferente
Aurten estreinakoz egingo dute, eta Euskal Herriko lasterkariarentzat egun hori erreferente izatea

eta urtero antolatzen jarraitzea da euren helburua. Izen emateei dagokienez, dagoeneko jendea hasia dela animatzen azaldu dute. «Bizkaitik edota Leizatik, esaterako, jendeak emana du izena, eta gure mugetatik at, Burgo-



Lasterkariarentzat egun hau erreferentzia izatea eta urtero antolatzea da gure helburua»

UNAI UGARTEMENDIA
'euskaltrail.com' atariko kidea

setik, adibidez, ere etorriko dira». Antolatzailerek herritar oro animatu dute parte hartzera, eta oraindik hilabete geratzen den arren, azkar ibiltzeko gomendioa luzatu dute, lekua mugatua baita.

Hiru tolosarrek bultzatua
Unai Ugartemendiak, Ion Ubide eta Joseba Usabiaga dira euskaltrail.com webgunearan arduradunak pasa den urteko irailaz ge-

↓ Datuak

EGITARAUA

- **10:30.** Ibarra Belabieta kiroldegian hitzordua.
- **11:00.** Korrikaldiaren irteera.
- **13:00-13:15.** Korrikaldiaren bukaera, Belabieta kiroldegian.
- **14:15.** Bazkaria, Izaskungo jatetxean.
- **16:00.** Euskal korrikalari onenak eta aipamen bereziei sari banaketa.
- **16:15.** Materialen zozketa: Medilast, Salomon, OS20...
- **16:30.** Mahai ingurua, Izaskungo jatetxean, Iker Karrera, Oihana Kortazar, Zigor Iturrieta eta Aitor Lopez Rekarte lasterkariekin.

IZEN EMATEA

- **Nola.** euskaltrail@gmail.com helbidera mezua bidali, eta 20 euro sartu 2101008116001307 9116 zenbakian, izen-abizenak jarri.
- **Epea.** Otsailak 15.

rozтик. Tolosarrak dira, eta horregatik, Tolosaldean antolatu nahi izan dute I. Euskaltrail Eguna. Ugartemendiak adierazi duenez, betidanik izan dute horrelako egun bat antolatzeko nahia: «Mendi lasterketen denboraldia hasi aurreko astean antolatu dugu, eta egun polita izango dela espero dugu».

Hiruren artean banatzen dute webgunearan ardura, eta lehen hilabeteetan izandako esperientziarekin «gustura» daude. Euskal Herrian mendiak eta mendiarekin lotura duten kirolak duten zaletasunaren erakusle euskaltrail.com ataria da. «20.000 bisitari baino gehiago izaten ditugu hilerogure webgunean, eta Facebookeko gure orrian ere jarraitzaile ugari ditugu», dio Ugartemendiak. Urteetik urtera kitul honek jende gehiago erakartzen duela ere konturatu dira: «Garai batean lasterketa batean parte hartzeko egunean bertan izena emanda nahikoa izaten zen, baina gaur egun, lasterketaren aurreko egunetan betetzen dira zerrendak».

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



-Eskeronak-

Antonia Balerdi Erasquin

Familiaren partetik, eskerrik asko doluminak eman eta momentu latz hauetan lagundu diguzuen guztiei. OTSAILAREN 3an eguerdiko 12:00etan TXARAMAKO Kapilan meza izango da bere izenean.

TXARAMA, 2013ko otsailaren 1ean



-1. urteurrena-

Jesus Ariztimuño Aranalde

2012-01-30ean hil zen

Bere aldeko meza, igandean OTSAILAK 3, eguerdiko 12:00etan OREXAKO elizan izango da. Aldez aurretik, mila esker.

Etxeokoa

OREXA, 2013ko otsailaren 1ean



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

NATUR HOUSE

Elikaduran eta dietetikan adituak



Zure giltzurruna da gehiegikeriak pairatzen dituen

ZURE ORGANISMOA GARBITU

Alkatxofa, errefau beltza eta kamamila estraktuek zure organismoa garbitzen laguntzen duten ezaugarriak dituzte; gainera, modu progresiboan, pisua galtzen lagun dezakete.



Kupoi hau ekarri eta LEVANAT PLUS erostean FIBROKI gaileten kaxa bat emango dizugu opari Tolosako Naturhouse dendan (Nafarroa etorbidea, 1 Tel. 943 650 795).

NATUR HOUSE
Elikaduran eta dietetikan adituak



Jarrai gaitzazu Facebook orrialdean
www.facebook.com/Spain.NaturHouse

www.naturhouse.com

* Kupoia 2013ko otsailaren 28ra arte erabili daiteke **HTZT**